

**Batxilergoko Aparteko Saria 2015/2016 Premio Extraordinario de Bachillerato****EZ SINATU ETA EZ JARRI IZENA / NO FIRMES NI PONGAS TU NOMBRE**

IDENTIFIKAZIO-KODEA / CÓDIGO IDENTIFICATIVO	KALIFIKAZIOA / CALIFICACIÓN
---	-----------------------------

LITERATURA UNIBERTSALA**LITERATURA UNIVERSAL**

Balioespena: irizpide orokorrak	Criterios generales de valoración
<p>Honako hauek hartuko dira aintzat: erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, testuaren egituraketa, lexikoaren egokitasuna eta hizkuntza-zuzentasuna.</p>	<p>Se valorará la corrección de las respuestas, la claridad y calidad de la exposición, la estructuración, la propiedad del vocabulario y la corrección lingüística.</p>

Balioespena: irizpide espezifikoak	Criterios específicos de valoración
<ol style="list-style-type: none"> Aplicatzen ditu aldiei buruz ikasitakoak, eta azaltzen du zer bilakaera izan duten literatur generoek, haien testuinguru kulturalean kokatuta. (3 puntos) Antzematen dio literaturak sortutako mito eta arquetipo batzuen eraginari, eta azterzen du zergatik duten balio irakunkorra kultura unibertsalean. (2 puntos) Aplicatzen ditu aldi, obra eta egileei buruz ikasitakoak; eta arrazoia emanez egiten du testuen iruzkina, eta identifikatzen ditu haien oinarrizko ezaugarriak. (2 puntos) Ideia eta sentimendu kolektiboen topaleku gisa balioesten du testua, eta bere bizipenekin lotzen du haren edukia. (3 puntos) 	<ol style="list-style-type: none"> Aplica conocimientos adquiridos sobre períodos y explica la evolución de los géneros, enmarcándola en el contexto cultural que los rodean. (3 puntos) Reconoce la influencia de algunos mitos y arquetipos creados por la literatura y analiza su valor permanente en la cultura universal. (2 puntos) Aplica conocimientos adquiridos sobre períodos, obras y autores, y comenta los textos de manera razonada, identificando sus características esenciales. (2 puntos) Realiza valoraciones del texto como punto de encuentro de ideas y sentimientos colectivos y relaciona el contenido del mismo con sus propias vivencias. (3 puntos)

Ariketak

1. Alderatu itzazu aldi hauetako antzerkiaren ezaugarri nagusiak: tragedia greko, isabeldar antzerkia eta XIX. mendearren bukaerako antzerkia. Aipatu itzazu, halaber, aldi horietako bakoitzeko zenbait egile eta lan. (3 puntu)
2. Monologo honetako pertsonaia arketipo bihurtu da. Azaldu zer ezaugarri dituen arketipo horrek. Aipatu beste arketipo literario batzuk eta azaldu zer esanahi ematen zaien. Zer balio dute kultura unibertsalean? (2 puntu)
3. Esan nor den pasartearen egilea eta eman itzazu haren lanari buruzko datu aipagarriren batzuk. Azaldu zer leku eta zer zentzu dituen pasanteak obraren osotasunean. (2 puntu)
4. Zer mezu adierazten ote du pasanteak? Badu indarrik gaurko gizartean obraren zentzuak? Argudiatu erantzunak, eta erlazionatu itzazu zeure bizipen eta iritziekin. (3 puntu)

Ejercicios

1. Compara los rasgos principales de estos tres momentos del teatro: tragedia griega, teatro isabelino y teatro de fines del XIX. Cita, asimismo, algunos autores y obras de cada uno de estos momentos. (3 puntos)
2. Explica las características del arquetipo en el que se ha convertido el personaje de este monólogo. Podrías citar y explicar otros arquetipos literarios y su significado. ¿Qué valor pueden tener estos arquetipos en la cultura universal? (2 puntos)
3. Identifica quién es el autor del fragmento y da algunos datos relevantes sobre su obra. Comenta el lugar y el sentido del fragmento en la obra a la que pertenece. (2 puntos)
4. ¿Cuál puede ser el mensaje del fragmento? ¿Tiene vigencia el sentido de la obra en la sociedad actual? Argumenta tu respuesta y relacionala con tus propias vivencias y opiniones personales. (3 puntos)

Testua

“Izan, ala ez izan: horra hor auzia; ea nobleago zaigun fortuna gaitzaren harri eta gezikadak pairatzea, ala nahigabe-itsaso baten aurka altxaturik aurre egin eta azkena ematea nahigabeoi? Hiltzea, lo egitea, besterik ez; eta lo horrez amaituko balitzaizkigu, bihotz-minarekin, haragiari berez datxezkon mila ezbeharrak... bai akabera irrikagarria horixe. Hiltzea, lo egitea; lo, ausaz amets egitea: horra hor, bai, koska; ezen, herio-lo horretan zer amets datozen bizi-lor hau gainetik ken dezagunean, atzeragarri baitugu noski. Gogoeta horrek du hain luzaro bizirik iraunazaten miseria. Ezen, nork lituzke jasango munduaren ukaldiak, zapaltailearen makurra, harroaren destaina, maitasun gaitzetsiaren penak, legearen geldoa, kargudunen burgoikeria, eta baliozkoak etsi-etsian eskasarengandik jasotzen dituen purrustadak, berak lezakeelarik bertan kito egin kontuaz sastakai huts batez? Nork lituzke zamok eramango, bizi astun baten nekepean kexu-izerditan, ez balitz heriotzaren —beraren mugatik bidaiaririk itzultzen ez den lurralte ikertu gabe horren— ondorengo zerbaiten ikarak gogoa aztoratzen digulako eta hobetzat joarazten munduko gaitzak pairatzea, ezen ez oldartza ezagutzen ez ditugun beste batzuetara? Hala gaitu kontzientziak koldar bilakatzen guztiok; eta hala du deliberoaren jatorrizko kolorea arras gaizkitzen pentsamenduaren zantzu zurbilak, eta hainbat egiteko funts eta mutua larrikok horren kariaz du bere oldea bestetaratzen, eta ekintza izena galtzen... Apal dezadan, baina, ahotsa: horra Ofelia ederra. —Ninfa, heure otoitzetan oroit ene hoben guziez.”

Texto

“Ser o no ser. Esa es la cuestión. ¿Qué es más noble? ¿Permanecer impasible ante los avatares de una fortuna adversa o afrontar los peligros de un turbulento mar y, desafiándolos, terminar con todo de una vez? Morir es... dormir... Nada más. Y durmiendo se acaban la ansiedad y la angustia y los miles de padecimientos de que son herederos nuestros míseros cuerpos. Es una deseable consumación: Morir... dormir... dormir... tal vez soñar. Ah, ahí está la dificultad. Es el miedo a los sueños que podamos tener al abandonar este breve hospedaje lo que nos hace titubear, pues a través de ellos podrían prolongarse indefinidamente las desdichas de esta vida. Si pudiésemos estar absolutamente seguros de que un certero golpe de daga terminaría con todo, ¿quién soportaría los azotes y desdenes del mundo, la injusticia de los opresores, los desprecios del arrogante, el dolor del amor no correspondido, la desidia de la justicia, la insolencia de los ministros, y los palos inmerecidamente recibidos? ¿Quién arrastraría, gimiendo y sudando, las cargas de esta vida, si no fuese por el temor de que haya algo después de la muerte, ese país inexplorado del que nadie ha logrado regresar? Es lo que inmoviliza la voluntad y nos hace concluir que mejor es el mal que padecemos que el mal que está por venir. La duda nos convierte en cobardes y nos desvía de nuestro racional curso de acción. Pero... interrumpamos nuestras filosofías, pues veo allí a la bella Ofelia. Ninfa de las aguas, perdona mis pecados y ruega por mí en tus plegarias.”